

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Margarita Olañeta Izagirre
Pedromarianekua*

Ermua, Bizkaia (1931)

Aurkibidea



Biografia



Ermuko Erdiko kalean jaioakoa 1931n. Ignacio Olañeta eta Rosario Izagirreraren bost seme-alabetatik bera izan zen nagusia. Aita Ermuko alkate izan zen ezkondu zenetik, ardura hori hartu aurretik "AGIreneko" tailerrean mekaniko aritu bazen ere. Amaren kargu zegoen "Pedromariareneko" taberna-denda. Artean neskatotxo zela, aita nola espetxeratu, desagertu eta hil zen ezagutu zuen. Bilbon "Huérfanas de guerra" ikastetxean ikasi zuen 6 urtetik 14 urtera bitartean. 25 urterekin Eibarrera ezkondu zen Jose Mari Kruzetarekin eta 4 seme-alaba izan zituzten. 2002tik 2016ra bitartean 'Eibar' aldizkariaren zuzendari eta koordinatzaile izan zen, senarrak lagatako konpromisoari jarraituz. Politikaren gaineko irratia mahai-inguru baten hizlari bezala jarduna da eta sigla gabeko Udalbatzak defendatu izan ditu. Ermua eta Mallabiko 'Drogeteniturrí' herri aldizkariaren 2007ko martxoko 144. zenbakian, Ignacio Olañetaren izaera eta heriotzaren gaineko artikulua bat argitaratu zen, haren alabaren (Margariren) oroitzapenekin.

Zintak

ERM-028

- **Proiektua:** Ermuko eta Mallabiko "Drogeteniturrí" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aiestaran Yarza, Alazne - Gonzalez, Esti
- **Data:** 2007-03-14
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com